

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Arte Eszenikoen Profesionalen Elkartek 63 antzezlan programatu ditu 24 udalerritan

Foru Gobernuak 127.700 euroekin finantzatu ditu emanaldiak, aurrekontuaren % 70

Jueves, 13 de junio de 2013

Nafarroako Arte Eszenikoen Profesionalen Elkartek (NAPAE) urtean zehar 63 emanaldi eskainiko ditu Iruñean eta Nafarroako beste 23 udalerritan, eta haietako batzuk normalean ez dute kultur eskaintzarik jasotzen.

NAPAEren arduradunek, Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegiuren laguntzarekin, aurkeztu dute gaur goizean programazio hori, eta bertan, antzezlanekin batera, kultur hedapeneko beste ekintza batzuk sartzen dira: zirku-tailerrak, irakurketa dramatizatuak, sormen-prozesuan dauden ikuskizunen emanaldiak (work-in-progress) edo ipuin-kontalarien saioak.

NAPAEk 16 konpainiaz osatutako sare bat hartzen du barnean, eta elkarrekin lehiatu dira Nafarroako Gobernuak talde nahiz erakunde artistikoei bideratutako diru-laguntzen deialdian; handik 127.700 euro lortu dute, onartutako aurrekontuaren % 70aren baliokide dena. Duela bost urte jaio zen Foru Komunitateko udalerritan konpainia profesional nafarren antzezlanen programazioa sustatzeko xedearekin, sektoreko hainbat eragileren elkarrekintza eragiteko, kide diren Konpainiei beren lana merkaturatzen laguntzeko eta publikoaren segmentu guztientzako kultura egiteko.

Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabaleguik adierazi duenez, "krisi garaian egokitzen jakin izan duen proiektua da, 16 konpainien sareko lankidetzeta eta lana sustatuz. Horrek koordinazio handiagoa eta baliabideen optimizazioa dakar; kostuak partekatzen uzten du, jasangarriagoa dena, eta lan-aukera berriak sortzen ere laguntzen du".

Napae osatzen duten konpainiak honako hauek dira: Solita Intencione, Yarleku, Zirika Zirkus, XXL, La Banda, La caja flotante, Iluna Producciones, Sergio de Andrés, Trokolo, Tdiferencia, La llave maestra, Pablo del Mundillo, Malaspulgas, Oreka, Mikel Mikeo eta Movimiento NO OUT. Nolanahi ere, Elkartek, gainera, bere proiektuan deialdian ere parte hartutako beste erakunde batzuen emanaldiak barneratu ditu eta, ondo baloratu arren, diru-laguntzarik jaso ez zutenak aurrekontu-partidaren kreditua agortu izanagatik. Erakunde horiek dira: Haizea, Los amigos del Arte, Hierba Roja, Matalaladanza elkartea eta Inkietas elkartea.

Bestalde, proiektua ondorengo udalerrian burutuko da: Altsasu, Antsoain, Agoitz, Aranguren, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Etxarri-Aranatz, Galar, Huarte, Irurtzun, Lodosa, Los Arcos, Noain, Olazti, Ororbia, Gares, San Adrian, Tafalla, Tuter, Valtierra, Viana eta Atarrabia.

Iruñeko emanaldia Adacen-en izango da (Nafarroako hartutako kalte zerebralaren elkartea), emanaldiak kulturak sarbide zaila duen publikoei eramateko helburua betez

Kultur hedapeneko beste zenbait ekintza

Programak ikuskizunen emanaldi osagarri modura proposatzen ditu. Horrenbestez, haur eta gaztetzako zirku-tailerrak antolatu dira, Oreka Zirku Eskolak emanda; irakurketa dramatizatuaren zikloak; work-in-progress edo sormen-prozesuan dauden ikuskizunen emanaldiak, lan eszenikoaren prozesuak publikoari erakusteko: "Entzun Ikusi ahal izateko", antzeztokian gertatzen denaren soinu-deskribapenak (Nafarroako Erretina Elkartearen laguntzarekin garatuko den ekintza); eta "Zu ere aintzat hartzen zaitugu" ipuin-kontakteta saioak eta ipuinak kontatzen ikasteko tailerrak barnean hartzen dituenak.